IRATXE ZORROZA ELORRIETA (1. guztira 2)
Kontratazio-Zer. Orokorretako Arduraduna / Resp. Contratación y Serv. Grales.
Sinaduraren data: 23/01/2026
HASH: 9093382e693588c0cf83d0f64ce1a12

Iñigo Arriandiaga Hernando (2. guztira 2)
Alkatea / Alcalde-Presidente
Sinaduraren data: 23/01/2026
HASH: 971d3fb07bbfb6965c2d8cea60fb2964

ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

KONTRATU MOTA: ZERBITZUAK
PROZEDURA:IREKIA
KONTRATU ERRESERBATUA: BAI (9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena, 4. XG)
ERREGULAZIO HARMONIZATUKO KONTRATUA: EZ
ERREKURTSO BEREZIA IZAN DEZAKEEN KONTRATUA: Bai
LIZITAZIO ELEKTRONIKOA: Bai

Espediente zk.

Kontratu mota: Gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziei erreserbatutako kontratua (9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena, 4. XG)

Xedea: MUGIKORTASUN URRIKO PERTSONENTZAKO GARRAIO BEREZI EGOKITUKO ZERBITZUA

Edukia:

*Kontratuaren berariazko klausulak.

*Baldintza orokorrak.

*Eranskinak.

Baliozkotze Kod.: 96LJCZRW64XSGQENLKNL327EH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 20

KONTRATUAREN BERARIAZKO KLAUSULAK

I. PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK.

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

1.1.- Definizioa: Kontratu honen xedea hau da: garraio berezi egokituko zerbitzua ematea, Galdakaon, mugikortasun murriztua duten pertsonei.

Mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako garraio bereziko zerbitzua gizarte-zerbitzu komunitario bat da, mugitzeko zailtasunak dituzten familiei eta/edo pertsonei zuzendua, eta, batez ere, baliabide komunitarioak eskuratzeko eta/edo jarduera komunitarioetan parte hartzeko garraioa ematean datza, pertsonek beren etxean eta gizarte-ingurunean jarrai dezaten laguntzeko.

Kontratu hau gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat erreserbatuta dago, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 4. xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, baldin eta dagokion autonomia-erkidegoko Enplegu Zentro Berezien Erregistroan inskribatuta badaude.(Ikus zehaztapenak oinarri teknikoetan).

1.2.- Sortatan banatzea: ez

- Sortatan ez banatzea justifikatzea: oso izaera homogeneoa duen zerbitzua da, hainbat sortatan banatzeko aukera ematen duen elementurik ez duena, eta, gainera, kontratua sortatan banatzeak haren exekuzioa arriskuan jarriko luke, zerbitzua koordinatzeko zailtasuna dela eta.

1.3.- **CPV kodea**:6013000-8 Bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzu bereziak.

Osagarria 85300000-2 Gizarte-laguntzako zerbitzuak eta lotutako zerbitzuak

1.4.- Jarduerak sailkatzeko beste sistema batzuk: Ez

1.5.- Zerbitzu-kategoria: 25 (Gizarte- eta osasun-zerbitzuak)

1.6.- Traktua: Segidakoa: Bai

2.- KONTRATU-IZAERA DUTEN DOKUMENTUAK

Baldintza orokorren 2. klausulan adierazitakoak.

3.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

3.1.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA 108.000,00 €-koa da (BEZa barne) kontratuak iraungo dituen bi (2) urteetarako; 54.000,00 euro urte bakoitzerako (BEZa barne).

Baliozkotze Kod.: 96LJCZRW64XSGQENLKNL327EH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 20

Beheranzko eskaintzek honako **lizitazio-tasa** hau izango dute:

Gehieneko urteko aurrekontua	**49.090,91,00 euro/URTE**
% 10eko BEZa	**4.909,09,00 euro**
Guztira (BEZa barne)	**54.000,00 euro/URTE**

Lizitazio-tasen zenbatekoaren araberakoak izango dira lizitatzaileen **beheranzko eskaintzak**, eta baldintza hauek bete beharko dira:

- Lizitatzaileek AKPAren IV.1 eranskineko ESKAINTZA EKONOMIKOAREN ereduaren arabera eskaini behar dituzte prezioak (ez dira bi hamartar baino gehiago erabiliko).

- Proposatutako lizitazio-tasa gainditzen duten eskaintzak automatikoki baztertuko dira baita agiri honetako baldintza orokorretako 14. artikuluan jasotako kasuren bat betetzen dutenak ere.

- Eskaintza anormalki baxuegiak klausula espezifikoen 22.3 atalean azaldutakoaren arabera arautuko dira; halaber, baztertuta gera daitezke, baldin eta murrizketa justifikatzen duen eta aurkeztutako eskaintzaren bideragarritasuna bermatzen duen arrazoi objektiborik ez badago, artikulu honetan ezarritako prozeduraren arabera: Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 149.4 artikulua.

3.1. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUAREN BANAKAPENA

SPKLren 100. artikuluaren arabera, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (kontratazio-organoak kontratuaren arabera konprometitu dezakeen gastuaren gehieneko mugatzat hartuta), BEZa barne, merkatuko prezioetara egokitu beharko da, eta behar bezala banakatuta egon beharko da. Banakapen hori AKPAren I.1 Eranskinean jasoko da.

3.2.- Aurrekontu-aplikazioa: **22.2316.22301**

Urteko aurrekontuak hauek dira (BEZa barne):

2026 (martxoaren 15etik aurrera)	43.052,05 €
2027	54.000 €
2028 (martxoaren 14ra arte)	10.947,94 €

Hala ere, urteko aurrekontu horiek gutxi gorabeherakoak dira, eta kontratuaren hasiera-dataren arabera aldatu ahalko dira.

3.3.- Aurretiko izapidetzea: **ez**

3.4.- Gastuaren finantzaketa lagunduta dago: ez

4.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA: 196.363,64 €

- Osatzen duten elementuak:

Baliozkotze Kod.: 96LJCZRW64XSGQENLKNL327EH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 20

- Zerbitzuen balio zenbatetsia kontratuaren iraupen-epean (2 urte), BEZik gabe: 98.181,81 euro.
euro
- Kontratuak izan dezakeen luzapenaren (2 urte) eta aldaketaren balio zenbatetsia (BEZik gabe): 98.181,81 euro.

Kontratuaren balio zenbatetsia GUZTIRA: 196.363,62 €

- Kalkulu-metodoa: justifikazio-memoriari jarraikiz, kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko, aurrez jarraian esleitu den antzeko kontratuaren balio erreal osoa hartu da kontuan, aurreko ekitaldikoak edo aurreko 12 hilabeteetakoak, agiri teknikoan azken kontratuarekiko aurreikusitako aldaketen arabera doituta (SPKL, 101.10 art.). Exekuzio-aurrekontua (2 urte) eta aurreikusitako luzapena (2 urte) aurreikusi dira.

5.- PREZIOA ETA ORDAINKETAK

5.1.- **Prezioa zehazteko sistema:** Oroharreko prezioan (SPKL 102. art.)

5.2.- **Prezioa ordaintzeko modua:**

Dagozkion fakturak aurkeztu eta ontzat eman ondoren ordainduko dira lanak. Faktura horiek hilero emango dira, eta Gizarte Ekintzako arloak adostasuna eman ostean, 30 eguneko epean ordainduko dira, SPKLren 198.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

5.3.- **Prestaketa-eragiketak daude:** Ez

5.4.- **Prezioak berraztertzea**: Ez dagokio (SPKL 103. art.)

6.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN IRAUPENA EDO EXEKUZIO-EPEA. LUZAPENA.

6.1.- **Guztizko iraupena edo guztizko exekuzio-epea**: **BI (2) URTE.**

6.2.- **Hasteko data**: 2026ko MARTXOAREN 15etik aurrera, edo kontratua formalizatu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera (geroagokoa bada).

6.3.- **Epe partzialak**: Ez

6.4.- **Kontratua luzatzeko** aukera: **bai, BI URTEZ (2) luzatu ahalko da.**

7.- **PUBLIZITATE-GASTUAK: e**z dago horrelakorik.

8.- **BERMEAK**

8.1.- Behin-behineko bermea: ez

8.2.- **Behin betiko bermea:** ez da eskatzen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 4. xedapen gehigarriaren 3. paragrafoaren arabera.

8.3.- Berme osagarria: Ez

Baliozkotze Kod.: 96LJCZRW64XSGQENLKNL327EH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 20

8.4.- Zilegi da bermeak prezioa atxikita eratzea: Ez

9.- ASEGURUAK

Kontratistak nahitaezko aseguruak izan beharko ditu, bai eta esleipendunak kontratua formalizatu aurretik egiaztatu behar dituen aseguru espezifiko haue ere: BAI, honako hau:

- **Poliza-mota:** Zerbitzua garatzearen ondorioz sor daitezkeen arriskuak, istripuak eta erantzukizun zibila estaltzen dituen asegurua, gutxienez **150.000** eurokoa (ezbeharragatiko kalte-ordainaren gutxieneko muga).

  Nolanahi ere, esleipendunaren kontura izango dira aseguruen frankiziaren zenbatekoa, bai eta ezbeharren zenbatekoa ere, aseguru-polizan ezarritako mugak gainditzen dituen kopuruarena, hain zuzen.

10.- **SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA:** Ez dagokio

11.- **EXEKUZIO-BALDINTZA BEREZIAK**

<u>11.1.- Sozialak edo enpleguari buruzkoak:</u>

11.1.1. Baldintza orokorren 28.2 klausulan jasotakoak, lege honen 7.artikuluan xedatutakoa betez: 3/2016 Legea, apirilaren 7koa, kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk sartzekoa.

11.1.2. Beste batzuk: Bai, honako hauek:

- **<u>Laneko arriskuen prebentzioaren arloan:</u>**

Kontratistak, esleitutako lana egiteko erabiltzen dituen langileei dagokienez, zorrotz bete beharko du lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen araudia, eta konpromisoa hartuko du, hala badagokio, enpresa azpikontratistek ere bete dezaten.

Bereziki, enpresa kontratistak eta, hala badagokio, azpikontratistak baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Indarrean dagoen legeriarekin bat datorren prebentzio-antolamendua ezartzea.
b) Kontratatutako jardueraren arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren planifikazioa eginda edukitzea.
c) Jarduerak koordinatzeko sistema bat izatea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 3/95 Legearen 24. artikuluaren arabera.
d) Arriskuen ebaluazioa dela-eta, prebentzio-baliabide bat behar duten zereginen eta/edo jardueren zerrenda izatea.
e) Kontratuaren exekuzioan parte hartzen duten langile guztiek, enpresakoek zein kanpokoek, honako hauek bermatuta izatea:

   - 1215/1997 Errege Dekretuaren araberako lan-ekipamenduak erabiltzea.
   - osasuna zaintzea, arriskuen arabera.
   - arriskuei eta prebentzio- eta babes-neurriei buruzko informazioa eta prestakuntza egokia.
   - beharrezko babes-neurri kolektiboak eta indibidualak.

Baliozkotze Kod.: 96LJCZRW64XSGQENLKNL327EH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 20

Egiaztatzea: kontratuaren arduradunaren eta Giza Baliabideen arloaren bidez (Laneko Arriskuen Prebentzioa)

- **Berdintasunaren arloan:**

- Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko hizkera erabili beharko da, emakumeen kontrako bereizkeria eragiten duen irudi oro saihestu beharko da, pertsonak ez dira sexuaren arabera maila altuagoetan edo baxuagoetan aurkeztuko giza duintasunari dagokionez, ezta sexu-objektu soil gisa ere, estereotipo sexistak saihestuko dira, eta balio hauek dituen irudia sustatuko da: berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta rol eta genero-identitate pluraltasuna.

- Kontratistak **azken memoria bat aurkeztu beharko du, generoaren arabera** honako hauengan izandako eraginari buruz: kontratatutako prestazioa, prestazioaren erabiltzaileak edo onuradunak, eta zerbitzua egikarituko duten langileak. Memoria horretan, **adierazleak eta datuak sexuaren arabera bereizi** beharko dira.

Egiaztapen-sistema:
- Kontratuaren arduradunari hau aurkeztea: hizkuntza eta irudi inklusiboak eta berdintasunezkoak izateko protokoloa edo hartutako berariazko neurriak.
- Kontratuaren arduradunari hau aurkeztea: kontratazioak onuradunengan eta zerbitzua ematen duten langileengan duen genero-inpaktuari buruzko memoriaren kopia.

11.2. Ingurumen-arloan:

Zerbitzua emateak berekin badakar dokumentuak aurkeztea, hala nola txostenak, memoriak, dosierrak eta abar, enpresa esleipendunak betebehar hauek izango ditu:

. % 100 birziklatutako eta klororik gabeko papera erabiltzea.
. Dokumentuak bi aldeetatik inprimatzea.

Egiaztatzea: Prestazioa ematen hasi aurretik, esleipendunak egiaztagiri hauetako bat aurkeztu beharko dio kontratuaren arduradunari proposamenean sartutako produktu bakoitzerako: **informazio hau jasotzen duen produktuaren fitxa teknikoa, Aingeru Urdina etiketa, laborategiko testa, FSC** edo beste egiaztagiri baliokide bat, baldin eta argi eta garbi frogatzen bada ezarritako irizpideak betetzen direla.

Kontratuaren indarraldian aldaketarik gertatuz gero, esleipendunak horren berri eman beharko du, eta Administrazioaren onarpena eskatu.

11.3. Hizkuntzari dagokionez

Agiri honetako baldintza orokorren 28.1 klausulan jasotakoak.

Eta, gainera, honako hauek:

- Enpresa esleipendunak zerbitzua ematerakoan errespetatu egin beharko du herritarrek arreta bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko duten eskubidea, eta, era berean, bi hizkuntzen erabilera bermatu beharko du harreman horren oinarri diren euskarri edo jarduera guztietan (inkestak, galdetegiak, zabalkunde-taldeak...).

- Erabilera publikoko inprimakiak, idazkiak eta jakinarazpenak euskaraz.

eta gaztelaniaz egin beharko ditu enpresa esleipendunak.

Baliozkotze Kod.: 96LJCZRW64XSGQENLKNL327EH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 20

- Enpresa esleipendunak bi hizkuntza ofizialak erabili beharko ditu kontratuaren xede den jarduerarekin lotutako esku-hartze publikoetan.

- Txostenak, gogobetetasun-inkestak eta sortzen den dokumentazio guztia bi hizkuntza ofizialetan entregatu beharko da, baldin eta emaitza, osorik edo zati batean, herritarren artean zabalduko bada.

- Era berea, kontratazioaren arlo-sustatzailea arduratuko da, Hezkuntza eta Euskarako arloarekin lankidetzan, zeregin hauetaz: kontratuetan jasotako hizkuntza-baldintzak betetzen direla egiaztatzeko neurriak hartzea, hizkuntza ofizialen erabileraren zuzentasuna ebaluatzea eta zaintzea.

11.4. Datuen babesari dagokionez: Agiri honen baldintza orokorren 28.4 klausulan jasotakoak, SPKLren 202. artikuluaren 1. atalaren arabera.

Betearazteko baldintza berezi horiei funtsezko kontratu-betebeharren izaera ematen zaie, eta ez-betetzea suntsiarazteko arrazoitzat jotzen da.

11.5.- Azpikontratazioari dagokionez: Agiri honen baldintza orokorren 28.3 klausulan jasotakoak, arau hauen arabera: 3/2016 Legearen 7. artikulua eta SPKLren 215.4 eta 217 artikuluak.

OHARRA: Kontuan izan behar da exekuzio-baldintza bereziak azpikontratista guztiei ere eskatuko zaizkiela.

12.- **OINARRIZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN, GIZARTE EDO LAN ARLOKO BESTE BETEBEHAR BATZUK**

12.1.- **Oinarrizko kontratu-betebeharrak:**

12.1.1.- Kontratuaren berariazko klausulen 11. klausulan adierazitako exekuzio-baldintza bereziak.

12.1.2.- Hala badagokio, II-2. ERANSKINEAN ("Baliabideak atxikitzeko konpromisoa") agertzen den erantzukizunpeko adierazpenaren koadroan adierazitako baliabideak kontratuaren exekuzioari atxikitzea, bai eta giza baliabideak eta/edo baliabide materialak ere, baldin eta esleipen-prozeduran kaudimen tekniko edo profesionalaren betekizunak betetzeko eduki eta/edo erabilgarri daudela egiaztatu bada.

12.1.3.- Kontratistak berak prestazioaren zati jakin batzuk edo lan jakin batzuk egin behar ditu, kontratuaren berariazko klausulen 14.1 eta 18.3 klausulen arabera.

12.1.4.- Kontratuaren berariazko klausulen 14.1 klausulan adierazitako azpikontratazioa egiteko baldintzak, azpikontratistaren gaitasuna baldintza orokorren 34.1 klausularen arabera egiaztatzea, eta SPKLren 215.2 artikuluaren c) letran aipatutako larrialdi- edo urgentzia-egoera eragiten duten inguruabarrak egiaztatzea.

12.1.5.- **Datu pertsonalen tratamendua:** Kontratista izango denak datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du.

Baliozkotze Kod.: 96LJCZRW64XSGQENLKNL327EH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 20

Eta kontratu honetan, horrez gain, honako hauek:

a) Datu horiek zer xedetarako lagako diren errespetatzeko betebeharra.
b) Kontratistak datuen babesari buruzko araudi nazionala eta Europar Batasunekoa bete beharko ditu une oro, alde batera utzi gabe 202. artikuluaren 1. ataleko azken paragrafoan ezarritakoa.
c) Kontratua formalizatu aurretik enpresa esleipendunak adierazpen bat aurkeztu beharko du, eta bertan azaldu beharko du non egongo diren zerbitzariak eta nondik emango diren haiei lotutako zerbitzuak.
d) Aurreko c) letran aipatutako adierazpenean eman duen informazioan gertatzen diren aldaketa guztiak jakinarazi beharko ditu kontratuak iraun bitartean.
e) Lizitatzaileek, asmoa baldin badaukate zerbitzariak edo zerbitzariei lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko, eskaintzan adierazi beharko dituzte enkargu hori jasoko duten azpikontratisten izenak edo enpresa-profilak, eta kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztu beharko dira.

Lehenago jasotako betebeharrak funtsezkotzat hartuko dira beti, 211. artikuluaren 1. apartatuko f) letran aurreikusitakoaren ondorioetarako.

Kontratuko funtsezko betebeharretako edozein ez betetzea arau-hauste larria da SPKLren 71.2 c) artikuluaren arabera.

12.2. **Ingurumen-, gizarte- edo lan-arloetako betebeharrak:**

12.2.1.- Ingurumen-arloko betebeharrak: ez

12.2.2.- Gizarte- edo lan-arloko betebeharrak: Bai:

12.2.2.1.- Aplikatu behar den hitzarmen kolektibo sektorialaren arabera, langileen soldata-baldintzak betetzea, SPKLren 122.2. artikuluaren ondorioetarako.

12.2.3.- Beste batzuk: Administrazio-klausulen agiri honetako klausula orokorren 27. klausulan aurreikusitakoak.

13.- **ZEHAPENAK.**

13.1.- Baldintza orokorren 31.1 klausulan ezarritako zigorrez gain, beste batzuk ezarri dira: Ez.

13.2.- SPKLren 193.3 eta 193.4 artikuluek epeak betetzean berandutzeagatik ezartzen dituzten zigor-zenbatekoak ez diren beste zenbateko batzuk ezarri dira: EZ

14.- AZPIKONTRATATZEA:SPKLren 215. artikuluaren arabera.

14.1.- **Prestazio partzialetarako azpikontratazio-baldintzak**: Ez

14.2. **Operadore ekonomikoek informazio eta/edo dokumentazio hau eman behar dute:** Bai

** Kontratistak azpikontratuak egiteko asmoa duela jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari, kontratua esleitu ondoren eta azpikontratista lanak egiten hasi baino hamabost (15)

Baliozkotze Kod.: 96LJCZRW64XSGQENLKNL327EH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 20

egun baliodun lehenago gutxienez, VI.2 ERANSKINEAN agertzen den formularioaren bidez, behar bezala beteta eta sinatuta.

15.- EXEKUZIOA, JASOTZEA ETA BERME-EPEA EGIAZTATZEA

15.1.- Prestazioa behar bezala eman dela egiaztatzeko modua: kontratuaren arduradunaren egiaztapen-txostena.

15.2.- **Jasotzeko epea**: hilabete 1

15.3.- Jasotze partzialak daude: ez

15.4.- **Berme-epea**: Kontratatzen diren zerbitzuek prestazioak amaitzen dituztenez kontratuaren exekuzio-epea amaitzen denean, ez da beharrezkotzat jotzen berme-eperik ezartzea.

16.- KONTRATUA ALDATZEA

Kontratua aldatzeko aukera: Ez da horrelakorik aurreikusi.

17.- SUNTSIARAZTEKO BERARIAZKO ARRAZOIAK.

- Baldintza orokorren 38. klausulan ezarritakoez gain, beste suntsiarazpen-kausa osagarriak ezarri dira: adjudikaziodunak ez betetzea administrazio-klausulen agiri honen 12.1 berariazko klausulan aurreikusitako kontratuko funtsezko betebeharrak.

18.- KONTRATUAREN XEDE DEN PRESTAZIOARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK.

18.1.- Kontratistak lan-programa aurkeztu behar du, zeina baldintza orokorren 25.2 klausulan xedatuta dagoen: Ez, lizitatzaileak eskaintzan sartu duen Memoria Teknikoan jaso behar duen informazioa alde batera utzi gabe.

18.2.- Prestazioa edo lan zehatza kontratistak berak egitea eskatzen da, SPKLren 75.4 artikuluan xedatutakoaren arabera: **ez**, 14.1 berariazko klausulan adierazi den moduan.

18.2.- **Datu pertsonalak tratatzeko neurri berezi gehigarriak ezarri dira, zeinak baldintza orokorren 29.2. d) klausulako 2) apartatuan aipatzen diren: bai, datu pertsonalak fitxategien arduradun den Udalaren kontura tratatzea dakarren kontratua delako.**

18.4- Beste batzuk: ez

II.- ESLEIPEN-PROZEDURAREN EZAUGARRIAK.

19.-ADMINISTRAZIO-ORGANOAK ETA ERREGISTROAK

19.1.- **Botere esleitzailea:** Galdakaoko Udala

19.2.- **Organoen identifikazioa.**

Baliozkotze Kod.: 96LJCZRW64XSGQENLKNL327EH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 20

19.2.1.- Kontratazio-organoa: Alkate Presidentea

19.2.2.- Organo hartzailea:

Galdakaoko Udala

Posta-helbidea: Kurtzeko plaza, 1. P.K.: 48960. Galdakao (Bizkaia).

DIR3 kodea: L01480366

19.2.3.- Kontratuaren arduraduna: Gizarte Ekintzako Unitate Teknikoko burua (Idoia Martínez)

19.2.4.- Kontabilitate publikoaren arloko organo eskumenduna: Udal kontu-hartzailea

19.2.5.- Kontratazio Zentrala. Kontratua esleitzen duen organoak beste erakunde batentzat jarduten du: Ez

12.1.1. 19.2.6.- Kontratazio-mahaiaren osaera: 1524/2023 Alkatetza Dekretua (2023/07/13ko BAO, 135. zk.):

Presidentea: lehen alkateordea (Edurne Espilla). 1. ordezkoa: bigarren alkateordea (Asier Eguiraun). 2. ordezkoa hirugarren alkateordea (Amets Bustillo).

Bokalak:

- Kontratuaren arlo sustatzaileko teknikaria: Titularra: Idoia Martínez, Gizarte Ekintzako Unitate Teknikoko burua
- Kontu-hartzaile orokorra Ainize Amarika Bidaurratzaga edo haren legezko ordezkoa.
- Korporazioko idazkari nagusia (Mikel Fuika Fuentes) edo haren legezko ordezkoa.

Idazkaria:

Titularra: Kontratazioaren eta Zerbitzu Orokorren arduraduna (Iratxe Zorroza Elorrieta)

Ordezkoa: Zerbitzu Orokorren teknikaria (Estibaliz Díez Borge)

2. ordezkoa: Kontratazioko teknikaria (Leire García Rodríguez)

19.2.7.- Adituen batzordea / organismo tekniko espeizlizatua: ez

19.3.- Esleipen-prozedura izapidetzeko ardura duen administrazio-unitatea: Kontratazio-departamentua

19.4.- **Kontsulta teknikoak egiteko kontaktua:**

- Gizarte Ekintzako arloa

- helbide elektronikoa: contratacion@galdakao.net

- telefono zk.: 94 401 05 00

19.5.- **Kontsulta juridikoak egiteko kontaktua:**

- helbide elektronikoa: contratacion@galdakao.net

Baliozkotze Kod.: 96LJCZRW64XSGQENLKNL327EH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 20

- telefono zk.: 94 401 05 27

19.6.- **Erregistroak**:

19.6.1.- **Kontratatzailearen profila**: www.galdakao.net/perfil-contratante

19.6.2.- **Eskaintzak aurkezteko erregistroa:** Euskadiko Kontratazio Plataformaren Lizitazio Elektronikoko Erregistro Telematikoa, helbide honetan: www.contratacion.euskadi.eus edo zuzenago: https://www.contratacion.euskadi.eus/informacion-general-licitacion-electronica/w32-kpelicel/es/ (Ikusi baldintza orokorren 12.2.1 klausula).

- **Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko laguntza-zerbitzua (Eusko Jaurlaritza)**: Tel. 945016298.

19.6.3.- **Ziurtagiriak eta fakturak aurkezteko erregistroa:** Galdakaoko Udalaren faktura elektronikoen sarrera-gune nagusia

(https://www.galdakao.eus/ -> Egoitza elektronikoa –> Faktura elektronikoa)

20.- IZAPIDETZEA ETA ESLEITZEKO PROZEDURA

20.1.- **Erregulazio harmonizatuko kontratua**: Ez, SPKLren 22.1.c) artikuluaren arabera.

20.2.- **Izapidetzea**: ohikoa

20.3.- **Prozedura**: irekia.

20.4.- **Sortetan banatzeari buruzko informazioa**: ez dagokio

20.5.- **Izapidetzeko bitartekoak**: **ELEKTRONIKOAK.**

20.6.- Enkante elektronikoa: Ez

20.7.- **Gizarteratzeko enpleguko zentro bereziei eta gizarteratze enpresei erreserbatutako kontratua edo babestutako enplegu programen esparruan dagoena:** Bai

20.8.- Kontratua erakunde jakin batzuentzat erreserbatuta dago, izaera sozial, kultural edo sanitarioa duen zerbitzu-kontratua delako, SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarriarekin bat etorriz: Ez

21.- KAUDIMENA, SAILKAPENA, GAIKUNTZA ETA BITARTEKOAK ATXIKITZEA

21.1.- **Gutxieneko kaudimen-betekizun batzuk izateko betebeharra**: bai, jarraian zehaztutako 21.2. klausularen arabera.

21.2.- **Kaudimena**: operadore ekonomikoek honako kaudimen hau izan behar dute:

- **Ekononomikoa eta finantzarioa.** Baldintzak: dagokion kaudimen ekonomikoa egiaztatu beharko da, SPKLren 87. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako bitarteko hauetako **bat edo batzuk** erabiliz:

Baliozkotze Kod.: 96LJCZRW64XSGQENLKNL327EH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 20

a) Lizitatzailearen urteko negozio-bolumenaren aitorpena, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokiona.

Baldintza: Egiaztatutzat joko da urteko negozio-bolumena aurkeztuz gero; amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, gutxienez kontratuaren urteko batez besteko balioa halako bat eta erdi izan beharko du (**73.636,36,00 euro**).

> Lizitatzailearen edo hautagaiaren urteko negozio-bolumena honela **egiaztatuko** da: onetsitako eta Merkataritza Erregistroan gordailututako **urteko kontuen** bitartez, baldin eta enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago, eta, bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailututako urteko kontuen bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentarioen liburuen eta urteko kontuen bidez egiaztatuko dute urteko negozio-bolumena.Kontuak inongo erregistro ofizialetan gordailututa edo legeztatuta ez dituzten lizitatzaileen kasuan, administrazio-klausula partikularren agiriko V.5. eranskina betez.

Oharra: urteko negozio bolumena honako hau da: merkataritza legerian ezarritako urteko kontuen araubide ereduetako galera eta irabaziei buruzko kontuan agertzen den negozio zifraren kopuru garbia.

- **Teknikoa edo profesionala.** Baldintzak:

Azken **HIRU** urteetan egindako zerbitzuen zerrendaren bidez egiaztatuko da; zerbitzu horien izaera kontratuaren xedea osatzen dutenen berdina izan beharko da (**mugikortasun urriko pertsonentzako garraio berezi egokituko zerbitzua**), eta exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren batez besteko urtekoaren ehuneko 70 edo handiagoa (**34.363,64 euro**) izan beharko da.

Hartzailea sektore publikoko erakundea denean, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako lanak edo zerbitzuak; hartzailea subjektu pribatua denean, berak emandako ziurtagiri baten bidez, eta, ziurtagirik ez badago, enpresaburuaren aitorpen baten bidez.

- **Enpresa sortu berriek (5 urte baino gutxiagoko antzinatasuna**, SPKLren 90.4 artikuluan xedatutakoaren arabera) **honela egiaztatu beharko dute kaudimen teknikoa**:

Eskatutako zerbitzua emateko behar beste baliabide izan beharko dituzte, eta, horretarako,
baliabide egokiak, langileak eta lokal bat izan beharko dituzte, baliabideak nahitaez atxikitzeari dagokionez jasota dagoenaren arabera.

Baldintza orokorren 11.4 klausularen bigarren paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak bakarrik egiaztatu behar ditu kaudimen-betekizun horiek, kontratuaren berariazko klausulen 25.1 klausulan adierazitako dokumentuen bidez.

21.3.- **Sailkapena** (*kaudimenaren ordezkoa*): **TALDEA R; Azpitaldea: 01; Kategoria: 1**

Baliozkotze Kod.: 96LJCZRW64XSGQENLKNL327EH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 20

21.4.- **Enpresa- edo lanbide-gaikuntza:** Exijitzen da:

Gizarte-ekimeneko Enplegu Zentro Berezien Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzea, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 43.4 artikulua betez, zeinak desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen baitu.

21.5.- Pertsona juridikoek prestazioa gauzatzeko ardura duten langileen izenak eta lanbide-prestakuntza adierazi behar dituzte: Bai, C gutun-azalean (formulak)

21.6.- **BALIABIDEAK ATXIKITZEKO BEHARA:** Bai, exijitzen da:

Zerbitzua ematera nahitaez atxiki beharreko giza baliabideak:

- **- C1 gidabaimendun gidaria.**

Zerbitzuari atxikitako baliabide materialak:

- Adjudikaziodunak **lokal bat** erabiliko du **zerbitzua kudeatzeko**; lokala adjudikaziodunaren jabetzako edo bestelakoa izan daiteke. Lokalak honako ezaugarri hauek izan beharko ditu:
  - Bulegoa eta ibilgailuentzako aparkalekua izatea.
  - Galdakaon eman beharreko zerbitzurako komunikazio-sistemak (telefonia finkoa eta mugikorra, ordenagailuak), adjudikaziodunaren langileekin, zerbitzuaren erabiltzaileekin eta gizarte-zerbitzuetako udal langileekin koordinatzeko.

Eskaintzak onartzeko, enpresa lizitatzaileek egoera hori frogatu beharko dute edo, bestela, adjudikaziodun izanez gero bulego hori izateko konpromisoa sartu beharko dute A gutun-azalean.

- Zerbitzuaren esleipendunak **ibilgailu** egokitu bat izango du mugikortasun urriko pertsonak eta gurpil-aulkiak garraiatzeko. Ibilgailuak 9 plazako edukiera izan beharko du, gidariarena barne.
  Era berean, baldintza tekniko berberak betetzen dituen ordezko ibilgailu bat izan beharko du gutxienez.
  Ibilgailuek geolokalizazio-sistema bat izango dute, eta sistema horrek ibilgailuaren kokapenari, ordutegiari, egindako geldialdiei eta egindako distantziari buruzko informazioa erregistratuko du, bai historia, bai denbora errealeko informazioa.

Deskribatutako atxikipena (giza baliabideena eta baliabide materialena) funtsezko betebeharra da, eta, beraz, hura ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat hartu ahalko da.

Baliabide horien benetako erabilgarritasuna eta eskatutako baldintzen egiaztagiriak eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak bakarrik egiaztatu beharko du, kontratuaren klausula espezifikoen 25.2 klausulan adierazitako dokumentuen bidez.

22.- ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Baliozkotze Kod.: 96LJCZRW64XSGQENLKNL327EH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 20

22.1.- Esleipen-irizpide bakarra dago: Ez

22.2.- **Hainbat esleipen-irizpide daude**: Bai

22.2.1.- **BALIO-IRITZI BATEAN OINARRITUTA KUANTIFIKATU BEHARREKO IRIZPIDEAK**: Bai. **(B GUTUN-AZALA)**

BALIO-IRITZI BATEAN OINARRITUTA KUANTIFIKATU BEHARREKO IRIZPIDEAK: **gehienez 49 puntu**, jarraian adierazitako moduan banatuta.

Zerbitzuak garatzeko antolaketa-proposamena jasotzen duen **proiektu tekniko bat aurkeztuko da** eta, bertan, kuantifikatu ezin diren irizpideak baloratuko dira. Proiektua dokumentu idatzi batean aurkeztuko da, **gehienez ere 20 orrialdekoa (aurpegiak), aurkibidea barne** (DIN A4, Arial 12 letra-tamaina, lerroarte bakuna). Gehieneko luzera hori errespetatu egin beharko da, eta gehieneko luzera hori gainditzen duten proiektuak ez dira baloratuko.

Kontratu honen xede den proiektu teknikoa honako alderdi hauei buruzkoa izango da:

- **Metodologia. Gehienez 24 puntu.**

  Hau baloratuko da:

  - Erabiltzaileei arreta emateko jarduketa-protokoloak, kasua bideratzen denetik: gehienez **6 puntu**.
  - Egindako eginkizunak, zerbitzuari atxikitako langileen plangintza eta jardueren plangintza: gehienez **6 puntu**.
  - Langileen prestakuntza: gehienez **6 puntu**.
  - Datu-bilketa, zerbitzuan izandako gorabeherak: gehienez **6 puntu**.

- **Koordinazioa. Gehienez 15 puntu.**

  Zerbitzua koordinatzeko prozesuak.

  Hau baloratuko da:

  - Zerbitzua ematen esku hartzen duten langileak koordinatzeko sistemak eta horien egokitasuna; bai lizitatzailearen mendeko langileen barne-koordinaziorako sistemak, bai lizitatzailearen kudeatzaileak Galdakaoko Udaleko Gizarte Ekintzako arloko langileekin eta beste gizarte- eta/edo udal-zerbitzu batzuekin koordinatzeko sistemak.

- **Zerbitzuaren ebaluazioa. Gehienez 10 puntu.**

  Hau baloratuko da:

  - Lizitatzaileak zerbitzuaren etengabeko ebaluazio optimoa egiteko erabiliko dituen metodoak, honako hauek kontuan hartuta: ebaluazio-adierazleak, erabiltzaileen gogobetetze-inkestak, Galdakaoko Udalari entregatzeko memoriak (edukia, urteko kopurua, arduradunak), informazioa biltzeko sistema eta lizitatzaileek proposatutako beste ebaluazio-bitarteko batzuk, Zerbitzurako egokitzat jotzen direnak.

Baliozkotze Kod.: 96LJCZRW64XSGQENLKNL327EH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 20

Proiektu teknikoak ezin izango du inola ere automatikoki edo formulen bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko informaziorik jaso. Hori sartzeak lizitaziotik kanpo uztea eragin dezake.

22.2.2.- **FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: Bai. (C GUTUN-AZALA)**

FORMULAK APLIKATUZ EDO AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK Gehienez **51 puntu**, jarraian adierazitako moduan banatuta.

1.- ZERBITZUAREN PREZIOA. Gehienez 22 puntu

Zenbateko osoaren proposamen ekonomikoa baloratuko da (BEZik gabe).

Proposamen ekonomikoaren irizpideari dagozkion puntuak esleitzeko, honako formula hau erabiliko da.

$$Vi = \frac{Bi \ldots\ldots\ldots}{Max\ (Bs, Bmax)} \times Vmax$$

Bertan:

Vi: eskaintza bakoitzari emandako puntuazioa edo balorazioa.
Bi: baloratzen den eskaintzaren JAITSIERAREN %, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuarekin alderatuta
Bs: kontratu honetan zehazten den **baja esanguratsua: % 10**.
Bmax: lizitaziora aurkeztutakoen artean baja handiena
Max (Bs, Bmax): adierazitako bien arteko balio maximoa
Vmax: prezioaren irizpideagatik eman daitekeen gehieneko puntuazioa.

2.- KALITATEAREKIN lotuta dauden irizpideak:

2.1.- ZERBITZUARI ATXIKITAKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA ESPEZIFIKOA (gehienez 3 puntu):

Honako eremu hauetako prestakuntza baloratuko da: mobilizazioa eta transferentziak garraio egokituan, gurpil-aulkiak ainguratzen ikastea, ibilgailuetako plataforma jasotzaileak erabiltzea erabiltzaileak ibilgailuan sartzeko, gai geriatriko eta gerontologiko orokorrak, garuneko kaltea, autismoa eta Down-en sindromea duten pertsonekiko portaera, erabiltzaileen tipologia, garraio egokituan arazoak konpontzea eta kasuistika, jarduteko protokoloak.

Hau baloratuko da:

- Goian adierazitako arloetan izandako prestakuntza AURKEZTEAGATIK. Ikastaroen/jardunaldien iraupena 10 ordukoa izan behar da gutxienez. Gehienez 3 puntu.
  - ➢ **Prestakuntzaren iraupena 10 ordu baino gutxiagokoa bada: 0 puntu**

Baliozkotze Kod.: 96LJCZRW64XSGQENLKNL327EH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 20

- **Prestakuntzaren iraupena 10 eta 20 ordu bitartekoa bada: 1 puntu**
- **Prestakuntzaren iraupena 21 eta 30 ordu bitartekoa bada: 2 puntu**
- **Prestakuntzaren iraupena 31 eta 40 ordu bitartekoa bada: 3 puntu**

(*) Oharra: Lizitatzaileek proiektuaren garapena zuzenean nori esleituko dioten zehaztu beharko dute, eta dagozkion agirien fotokopiak aurkeztu beharko dituzte, **prestakuntza egin izana egiaztatzeko** (ikastaroen tituluak, aprobetxamendu-ziurtagiria...); agiri horietan jasotako prestakuntza-orduak adierazi beharko dira.

2.2.- BERDINTASUNARI BURUZKO PRESTAKUNTZA (gehienez 5 puntu)

5 puntu emango dira, baldin eta enpresak konpromisoa hartzen badu kontratua gauzatzen duten langileei urtean gutxienez 10 orduko prestakuntza emateko emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan; eta ez zaio punturik emango arlo horretan inolako prestakuntzarik egiten ez duten eskaintzei.

3.- Zerbitzuaren hobekuntzak

3.1. – BALIABIDE MATERIALAK: Atxikitako ibilgailuen ezaugarri teknikoak (gehienez 13 puntu):

Ibilgailu nagusia: gehienez 9 puntu:

o Antzinatasuna 1 urte baino gutxiagokoa bada: 9 puntu.
o Antzinatasuna 1 urte edo gehiagokoa eta 2 baino gutxiagokoa bada: 7,5 puntu.
o Antzinatasuna 2 urte edo gehiagokoa eta 3 baino gutxiagokoa bada: 5 puntu.
o Antzinatasuna 3 urte edo gehiagokoa eta 4 baino gutxiagokoa bada: 4,5 puntu.
o Antzinatasuna 4 urte edo gehiagokoa bada: 0 puntu.

Ordezko ibilgailua: gehienez 4 puntu:

o Antzinatasuna 1 urte baino gutxiagokoa bada: 4 puntu.
o Antzinatasuna 1 urte edo gehiagokoa eta 2 baino gutxiagokoa bada: 3 puntu.
o Antzinatasuna 2 urte edo gehiagokoa eta 3 baino gutxiagokoa bada: 2 puntu.
o Antzinatasuna 3 urte edo gehiagokoa eta 4 baino gutxiagokoa bada: 1 puntu.
o Antzinatasuna 4 urte edo gehiagokoa bada: 0 puntu.

3.2.-- Lizitatzaileak zerbitzu hau kudeatzeko erabiliko duen LOKALAREN kokapena, 21.6 klausula espezifikoan adierazitako ezaugarri teknikoak dituena: Gehienez 6 puntu, jarraian adierazitako moduan banatuta:

o Lokala Galdakaoko udal-mugartean badago: 6 punu
o Lokala Galdakaorekin mugakide den udalerri batean badago: 3 puntu
o Lokala aurreko puntuetan aipatzen ez den Bizkaiko beste udalerri batean badago: 1 puntu

3.3.-- ESKALA MUGIKORREKO SISTEMA bat izatea, mugikortasun urriko pertsonak lekualdatzeko, baldin eta zerbitzua ematen den zentroetan edo etxebizitzetan

Baliozkotze Kod.: 96LJCZRW64XSGQENLKNL327EH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 16. orrialdea, guztira 20

irisgarritasunik ez badute. Gurpil-aulkia eskala mugikorrera egokituko da.Eskala mugikorrak CE marka izango du, eta mugikortasun murriztua duten pertsonak segurtasunez lekualdatzeko gutxieneko prestazio egokiak eskaini beharko ditu. (**2 puntu**).Lizitatzaileak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, non konpromisoa hartuko baitu eskala mugikor hori izateko, eta hori betetzea justifikatzen duten ezaugarri teknikoak adieraziko ditu.

Hau baloratuko da:

- Kontratua indarrean dagoen bitartean, aurreko paragrafoan adierazitako ezaugarriak dituen eskala mugikorra edukitzeagatik: **2 puntu**.
- Kontratua indarrean dagoen bitartean, aurreko paragrafoan adierazitako ezaugarriak dituen eskala mugikorra EZ edukitzeagatik: 0 puntu.

22.3.- **ESKAINTZA NABARMENKI BAXUEGIAK: Bai**.

22.3.1.- Prezioari dagokionez: bai.

Anormala dela ondorioztatzeko parametro objektiboak:

Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 85. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintzen kasuan, SPKLren 149. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraituko zaio.

22.4.- GUTXIENEKO PUNTUAZIO-ATALASEA: Bai, ezarri da:

Zenbakitan edo ehunekotan kuantifikatu ezin diren irizpideetan (B gutun-azala) puntuazio hau lortu behar da gutxienez:24,5 PUNTU (B gutun-azalaren gehieneko puntuazioaren % 50). Kontratazio-mahaiak ez ditu kontuan hartuko zenbateko horretara iristen ez diren eskaintzak.

23.- BERDINKETA HAUSTEKO BERARIAZKO IRIZPIDEAK: ez dira ezarri

24.- GUTUN-AZAL BAKOITZEAN AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

Prozeduran parte hartzeko eskatzen diren dokumentuak honako fitxategi elektroniko edo gutun-azal hauetan aurkeztuko dira:

24.1.- <u>A GUTUN-AZALA: AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO AGIRIAK.</u>

Gutun-azal horretan aurkeztu behar dira **baldintza orokorren 13.1 klausulan** adierazitako agiriak.

Lizitatzaileek gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezia edo gizarteratzeko enpresa direla adierazi beharko dute EKAB agirian, eta, esleipena egin aurretik, gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezi gisa edo laneratzeko enpresa gisa erregistratuta daudela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Baliozkotze Kod.: 96LJCZRW64XSGQENLKNL327EH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 17. orrialdea, guztira 20

Oharra: EKAB agiriaren IV. zatiari dagokionez, operadore ekonomikoak <u>a atala</u> soilik beteko du: <u>(bai/ez)</u>

- ***<u>OHARRA:</u> A gutun-azalean inola ere ez da sartu behar formula bidez edo automatikoki ebalua daitezkeen irizpideei buruzko informaziorik (C gutun-azalean sartu beharrekoak). Hala gertatuz gero, eskaintza baztertu egingo da. Lizitatzaile bakarra badago, kontratazio-mahaiak erabakiko du zer egin.***

24.2.- <u>B GUTUN-AZALA: BALIO-JUDIZIOEN BIDEZ EBALUATZEN DEN ESKAINTZA:</u>Bai

Gutun-azal horretan aurkeztu beharko dira **<u>PROIEKTU TEKNIKOA</u>** eta <u>aurreko 22.2.1 atalean ezarritako balio-iritzi baten mende dauden irizpideak baloratzeko behar den dokumentazioa</u>.

- ***OHARRA: Ez da, inolaz ere, balio-iritziari dagozkion esleipen-irizpideei buruzko informazioarekin batera (B gutun-azala), irizpide hauei buruzko informaziorik eman behar: formularen bidez edo automatikoki ebalua daitezkeen irizpideak (C gutun-azalean sartu beharrekoak). Horrela gertatuz gero, eskaintza kanpoan geratuko litzateke. Lizitatzaile bakarra badago, kontratazio-mahaiak erabakiko du zer egin.***

24.3.- <u>C GUTUN-AZALA: AUTOMATIKOKI EDO FORMULEN BIDEZ EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZA:</u> Bai

Gutun-azal honetan agiri hauek aurkeztu behar dira:

- <u>Eskaintza ekonomikoa</u>, **IV.1 ERANSKINEAN** agertzen den ereduaren arabera.
- <u>Aurreko 22.2.2. atalean ezarritako balorazio automatikoko gainerako irizpideak baloratzeko behar diren gainerako dokumentuak.</u>

24.4.- Aldaerak onartzen dira: ez

25.- ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHAR DUEN DOKUMENTAZIOA

Baldintza orokorren 21.1 klausulan adierazitako gainerako agiriekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira, hala badagokio:

25.1.- Kontratuaren berariazko klausulen 21.2 klausulan jasotzen diren ekonomia- eta finantza-kaudimenaren eta kaudimen tekniko edo profesionalaren baldintzak egiaztatzeko dokumentazioa: Hala dagokio, salbu eta kaudimenaren ordez kontratuaren berariazko klausulen 21.3 klausulan adierazi den sailkapena erabili bada.

25.2.- Kontratuaren berariazko klausulen 21.6 klausulan aipatzen diren baliabide materialak eta giza baliabideak erabilgarri daudela egiaztatzeko dokumentazioa:

- Zerbitzua kudeatzeko lokal bat duela egiaztatzen duen dokumentazioa, dela jabetzan, dela beste edozein tituluren pean.
- Mugikortasun urriko pertsonak eta gurpildun aulkiak garraiatzeko ibilgailu egokitu bat duela egiaztatzen duen dokumentazioa, gidaria

Baliozkotze Kod.: 96LJCZRW64XSGQENLKNL327EH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 18. orrialdea, guztira 20

barne, eta gutxienez ordezko ibilgailu bat duela, baldintza tekniko berberekin.
- C1 txartela duen gidaria.

26.- PROZEDURARI LOTUTAKO KLAUSULA GEHIGARRIAK

26.1.- **Baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria**:

26.1.1.- Eskaerak aurkezteko azken eguna: 12 egun, eskaintzak aurkezteko azken egunaren aurretik.

26.1.2.- Eskuratzeko azken eguna: 6 egun, eskaintzak aurkezteko azken egunaren aurretik (4 egun premiazko espedienteen kasuan).

26.1.3.- Pleguei edo gainerako dokumentazioari buruzko argibideen izaera loteslea: Bai

26.2.- Berariazko konpentsazio-modu bat aurreikusten da kasu hauetan: botere adjudikatzaileak kontratua egiteari uko egiten badio eta prozeduran atzera egiten badu: Ez

26.3.- Kontratua esleitzeko gehieneko epea ez da izango SPKLren 158.2 artikuluan ezarritakoa: ez

26.4.- Baldintza orokorren 23.1 klausulan adierazitako dokumentazioa osatzeko kontratua formalizatu aurretik aurkeztu behar diren agiriak: Bai:

- Kontratua formalizatu aurretik enpresa esleipendunak adierazpen bat aurkeztu beharko du, eta bertan azaldu beharko du non egongo diren zerbitzariak eta nondik emango diren haiei lotutako zerbitzuak.

- Dagokion datu pertsonalen konfidentzialtasun-kontratua formalizatuko da Udalaren (fitxategiaren arduraduna) eta kontratistaren (tratamenduaren arduraduna) artean, datu Klausula Teknikoen Agiriko eranskin honen arabera: Datu Pertsonalen Tratamendua.

III.- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK.

27.- KONTRATUA LAGATZEA. Kontratua lagatzeko bestelako inguruabarrak aurreikusi dira baldintza orokorren 35.1.1 klausulan aurreikusitakoez gain: ez

28.- KONTRATISTARI LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ARLOAN ESKATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Arlo horrekin lotuta, Laneko arriskuak prebenitzeko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duen urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuan xedatutakoa betetzeko, enpresa esleipendunari agiri hauek eskatuko zaizkio:

- Enpresaren antolamendu-modalitatea lan-arriskuen prebentzioan.
- Bete beharreko lanpostuetatik eratorritako arriskuen ebaluazioa eta ezarri beharreko prebentzio-neurriak.

Baliozkotze Kod.: 96LJCZRW64XSGQENLKNL327EH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 19. orrialdea, guztira 20

• Prestakuntzaren egiaztapena eta lanposturako eskatzen den prebentzioari buruzko informazioa.

29.- HONAKO ALDERDI HAUEK SARTZEAREN JARRAIPEN TAULA: SOZIALAK, INGURUMEN-ARLOKOAK ETA PROZEDURAN ETA KONTRATUAN SARTUTA DAUDEN BESTELAKO POLITIKA PUBLIKOEI BURUZKOAK.

Alderdiak:	**SOZIALAK EDO ENPLEGUARI LOTUTAKOAK**				**INGURUMEN -ARLOKOAK**	**LINGUISTIKOAK**
	BEREZIKI			**BESTE BATZUK**		
	Laneratzea	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna:	Laneko arriskuen prebentzioa			
Kontratuaren xedea	**Bai**					
Kaudimen-betekizunak	**Bai**					**Bai**
Zehaztapen teknikoak		Bai				
Esleipen-irizpideak		**Bai**		**Bai**		
Exekuzio-baldintza bereziak		**Bai**		**Bai**	**Bai**	**Bai**

Baliozkotze Kod.: 96LJCZRW64XSGQENLKNL327EH
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 20. orrialdea, guztira 20